

MUGIKORTASUN ELEKTRIKOA: ETORKIZUNEKO MUGIKORTASUNA

- **Jakintza adarra:** Ingeniaritza eta Arkitektura
- **Campus:** Araba
- **Ikastegi antolatzailea:** Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskola
- **Gradua/k:**
 - Industria Elektronikaren eta Automatikaren Ingeniaritza
 - Ingeniaritza Mekanikoa
 - Industria Kimikaren Ingeniaritza
 - Automobilgintzaren Ingeniaritza
 - Gradu Bikoitza: Ingeniaritza Mekanikoa + Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza
 - Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritza
 - Gradu Bikoitza: Ingeniaritza Mekanikoa + Industria Elektronikaren eta Automatikaren Ingeniaritza
 - Gradu Bikoitza: Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza + Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritza
- **Garapen-lekua (helbidea):** Nieves Cano kalea, 12 01006 Vitoria-Gasteiz.

1. JARDUERAREN DESKRIBAPEN LABURRA

Jarduera honetan ikasleek mugikortasun elektrikoaren oinarriak esperimentatuko dituzte era praktikoa eta ludikoa. Eta hurrengo galderari erantzuna emango diegu:

- Nola mugituko gara?
- Nola funtzionatzen dute patinete elektrikoak, bizikleta elektrikoak, droneak edo auto elektrikoak?

2. LANDUKO DIREN GAIK/EDUKIAK

- Mugikortasun jasagarria: mugikortasun elektrikoak.
- Motor elektrikoaren funtzionamendua.
- Ibilgailu elektrikoak: bere funtzionamendua eta birkarga.

3. EGINGO DIREN EKINTZAK

Jarduera honen metodologiak bi ardatz ditu: esperimentazioa eta jolasa ikaskuntza-baliabide gisa.

Esperimentazioa: motor elektrikoaren funtzionamenduari eta ibilgailu elektrikoaren funtzionamenduari eta birkargari buruzko 25 minutuko 3

muntaketa antolatu ditugu maketekin (tentsio-maila seguruko makinak eskalan), ibilgailu elektriko hutsen eta hibridoen simulagailuekin, eta benetako makinekin. Maketekin eta simulagailuekin ikasleek funtzionamendu-oinarriak esperimentatuko dituzte. Eta makina eta birkarga-sistema errealekin bere ezaugarri nagusiak, osagaiak eta funtzionamendua ezagutuko dituzte.

Jolas-dinamika: muntaketa bakoitzean ikasle-taldeari gauzatutako esperimentatuari buruzko galdera bat egingo diogu. Zuzena bada, hitz bateko fitxa bat lortuko dute. Lortutako fitxekin azken galderaren erantzuna aurkituko dute:

Nork erabakiko du zein eta nolakoa izango den etorkizuneko mugikortasuna?

4. EGUTEGIA ETA PLAZAK

Data	Hizkuntza	Txanda	Ordutegia	Plazak
2025-01-15	Elebiduna	Goizez	10:30-12:00	12
2025-01-16	Elebiduna	Goizez	10:30-12:00	12
2025-01-21	Elebiduna	Goizez	10:30-12:00	12